

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzeko espedientea behin betiko onartzea

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzeko espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, 4. eranskinari dagokionez (zabor-bilketa), ordenantzaren testu bateratua argitaratu da, indarrean jartzeko.

#### I. Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz (Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 epaia eta uztailaren 13ko 25/1998 Legea), tasak ezarri eta exijitzen ditu eranskinean jasotzen diren zerbitzuak emateagatik eta jarduerak gauzatzeagatik, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

##### 2. artikulua

Ordenantza hau Arratzua-Ubarrundia udalerrri osoan aplikatzen da.

#### II. Zergapeko egitatea

##### 3. artikulua

1. Zergapeko egitatea da udal-administrazioak udal-eskumeneko zerbitzua benetan ematea edo administrazio-jarduera gauzatzea, dela eskatu delako, dela, zeharka, subjektu pasiboari berariaz eragiten dion partikularren egite edo ez-egiteek eragin dutelako.

2. Zerbitzuak emateagatiko tasek ez dute baztertzen horiek ezarri edo handitzeagatiko kontribuzio bereziak ordainaraztea.

#### III. Subjektu pasiboa

##### 4. artikulua

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak eta erakundeak, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenak edo zerbitzu edo jarduera horien onura edo eragina jasotzen dutenak.

2. Honako hauek izango dira zergadunaren ordezeko subjektu pasiboak:

a) Etxebizitza edo lokalen erabiltzaile edo okupatzaileen onurarako diren edo haiengan eragina duten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan, higiezin horien jabeek kuotak ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei.

b) Hirigintza-lizentziak emateagatik ezarritako tasetan obra-eraikitzaile eta -kontratistak.

##### 5. artikulua

Honako hauek ordaindu behar dituzte tasak:

a) Partikularrek eskatuta egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, hala eskatzen dutenak.

b) Partikularrek eskatu gabe egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, baina ekintza edo ez-egite horiek egozgarri zaizkienei egozteko moduko ekintzen edo ez-egiteen ondorioz.

c) Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik eratortzen diren zerga-zorren erantzule izango dira eranskinean agertzen diren tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak.

#### IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

##### 6. artikulua

Salbuespenak, murrizketak, hobariak eta bestelako onura fiskalak emateko, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoa bete beharko da.

#### V. Zerga-oinarria

##### 7. artikulua

Dagokion zerbitzu edo jardueraren kostu erreala edo aurreikus daitekeena izango da zerga-oinarria, zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa eratzen laguntzen duten zuzeneko edo zeharkako gastuak kontuan hartuta, baita finantzakoak, ibilgetuaren amortizaziokoak eta orokorrak ere, aplikagarriak badira, eta ekarpen berezien bidez ordaintzen ez badira.

#### VI. Kuota

##### 8. artikulua

Aurreko artikuluko oinarriari eranskinean jasotako tarifen barruan dagokion tarifa aplikatuz zehaztuko da tributu-kuota, hura aplikatzeko arauen arabera.

#### VII. Sortzapena

##### 9. artikulua

Tasa honela sortuko da:

1. Zerbitzua edo jarduera ematen hasten denean, zerbitzu edo jarduera horren zenbateko osoa edo partziala gordailutzea eskatzeko aukerari kalterik egin gabe.

2. Jarduketa edo espedientea hasteko eskaera aurkezten denean; eskabidea edo espedientea ez da egingo edo izapidetuko dagokion ordainketa egin gabe.

#### VIII. Likidazioa eta diru-sarrera

##### 10. artikulua

Udal-administrazioak kontzeptu bakoitzeko dagokion likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa eskudirutan ordainduko du, kasuan kasuko tarifetan jasotako ordainarazpen bakoitzaren arau partikularren arabera.

Hori guztia, tasak autolikidazio-erregimenean kobratzeko eskatu ahal izateari kalterik egin gabe.

#### IX. Tasen kudeaketa

##### 11. artikulua

Ordenantza honetan araututako tasak likidatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagokionez, bai eta zerga-arloko arau-haustek kalifikatzeari eta kasu bakoitzari dagozkion zehapenak zehazteari dagokionez ere, Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean eta indarrean dauden legezko xedapenetan aurreikusitakoa aplikatuko da.

## Eranskina

### Zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak gauzatzeagatiko tasak

#### 1. hirigintza-lizentziak emateko jarduerak

##### 1.1 xedea.

Ordainarazpen honen xedea da eraikuntza- eta erabilera-egintzak eta/edo aldez aurreko udal-lizentziari edo aurretiazko jakinarazpenari lotutako edozein egintza gauzatzeko baimenak egiaztatzea bideratutako udal-jarduera, teknikoa edo administratiboa, betiere hirigintza-lege eta -arauetan, eraikuntza-ordenantzetan eta eraikuntzen, obren eta lurzorua erabileraren arloan aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, betiere eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko udal-zergan ordaintzeko betebeharrak ez badakar.

##### 1.2 tarifak.

Epigrafe hauetara egokituko dira:

1. epigrafea. Finkak partzelatzeko, bereizteko eta elkartzeko lizentziak: 50 euro.
2. epigrafea. Hirigintzako kontsultak. 20 euro.

##### 1.3 sortzapena.

Tasaren sortzapena lizentzia-eskaera egiten den unean gertatuko da, edo, lizentzia eskatu gabe ere, deskribatutako tarifen arabera tasak sorrazten dituzten egitateak gertatzen direnean.

#### 2. establezimenduak irekitzea

##### 2.1 xedea.

Tasa honen xedea izango da zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea, aldez aurretik beharrezko irekiera-lizentzia eman edo aurretiazko jakinarazpena egiaztatu aurretik, jarduera profesionalak, merkataritzakoak, industriakoak, zerbitzuetakoak edo edozein jarduera edo instalaziotakoak egiten direnean, baldin eta jarduera horietarako lizentzia edo baimena eskatzen bada ingurumenari buruzko araudi propioaren arabera, bai eta horientzako lagungarri edo osagarri diren edo haiekin zerikusia duten espazioak ere.

##### 2.2 tarifak.

Epigrafe hauetara egokituko dira:

1. epigrafea. Sailkatutako jardueren aurretiazko jakinarazpenean ezarritako baldintzak egiaztatzea eta horiek irekitzea. 20 euro.
2. epigrafea. Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren arabera sailkatutako jarduera-lizentzia. 100 euro.

##### 2.3 aplikazio-arauak.

— Tasaren sortzapena lizentzia-eskaera edo aurretiazko jakinarazpena egiten den unean gertatuko da, edo, eskatu edo jakinarazi ez bada ere, hurrengo erregelari adierazitako inguruabarretako bat gertatzen denean.

— Ordainarazpen honen ondorioetarako, hauek izango dira irekitzeko baimena edo aldez aurreko jakinarazpena lortu beharra duten establezimendu edo instalazioak:

- Lehenengo instalazioak, baita merkataritza-, industria- edo zerbitzu-xedeetarako makinak edo bestelako elementuak instalatze hutsa ere, nahiz eta berehala ez abiarazi, funtzionatu edo ireki.
- Lokalak lekuz aldatzea.
- Jarduera-aldaketak, izena, titularra eta lokala aldatu ez arren.

- Jarduera zabaltzea, baldin eta jarduera horiek jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota handitzea badakarte, salbu eta gehikuntza horiek zerga-erreformaren ondoriozkoak badira.

- Lokalak handitzea.

- Jarduera batek bi irekiera-lizentzia desberdin lortu behar baditu edo irekiera-lizentzia batek hainbat jarduera estaltzen baditu, zenbateko handieneko epigrafean ordainduko da zerga.

- Eskabidean atzera egiten bada ebazpenaren edo ukapenaren aurretik, ez da tasarik ordaindu beharrik izango.

- Indarrean dagoen araudiari egokitzeko lizentzia emateko prozedura izapidetzea eskatzen ez duten lizentzia-eskualdatzeak ez dira zergapetuko.

### **3. arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak ematea**

#### 3.1 xedea.

Tasaren gaia da Udalak zerbitzu tekniko eta administratiboak egitea arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimenak eman aurretik eta halakoak berriro aurretik, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, zeinak garatu egiten baititu abenduaren 23ko 50/1999 Legea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzearen araubide juridikoari buruzkoa, eta ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa.

#### 3.2. Tarifak.

Baimenak ematea edo berritzea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko: 10 euro.

#### 3.3. Sortzapena.

Tasa ordaintzeko beharra sortuko da baimena emateko edo berritzeko eskaera egiten den unean.

### **4. Zaborrak biltzea**

#### 4.1 Helburua.

Tasa honen xedea da etxebizitzetan, lokaletan, industria- eta merkataritza-establezimenduetan eta jardueraren bat egiten den beste higiezin batzuetan zaborra eta hondakinak biltzeko zerbitzua ematea, bai eta baimendutako zabortegetan garraiatu eta tratatzea ere. Hori udal-kuadeaketa zuzenaren bidez edo kontratistaren bidez egiten denean.

#### 4.2. Zerbitzuaren nahitaezko izaera.

Zaborra biltzeko zerbitzua orokorra eta nahitaezkoa da, eta, beraz, udalerrria osatzen duten udalerrietan dauden higiezinaren titularrek eta erabiltzaileek erabiliko dute.

#### 4.3 subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasibotzat hartuko da titularra, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren 7. artikulua arabera.

#### 4.4. Sortzapena.

Tasaren sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatzen da, eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren 18. artikuluan jasotakoa ezarriko da.

#### 4.5. Tributu-kuota.

Zerga-kuota urtekoa, murriztezina eta hainbanaezina da.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar ez duten edo ordaintzetik salbuetsita dauden merkataritza-, industria- edo fabrikazio-establezimenduek eta lokalek, antzekotasunagatik, egokien irizten den zerga ordainduko dute.

### Tarifak

Tasa hau ordaindu behar duten zergadunek urteko tarifa hauek ordaindu beharko dituzte:

Etxebizitzak	80 euro
1 motako kolektiboak. Jende ugari ibiltzen den lokalak (klub nautikoak, adingabeen zentroak, ikastola, Etxe Zuri, zaharren egoitzak...)	500 euro
2 motako kolektiboak (Gainerako tabernak, txokoak, elkarteak...)	200 euro
Nekazaritza- eta abeltzaintza-zerbitzuetarako biltegiak eta kooperatibak	150 euro
Zerbitzuguneak, gasolindegia...	300 euro
500 metro karratutik gorako tailerrak eta industriak	250 euro
500 metro karratutik beherako tailerrak eta industriak	150 euro
Lorezaintza zerbitzuak edo parekoak	100 euro
Merkatari edo profesionalen establezimenduak ohiko etxebizitza den eraikinean	20 euro
Merkatari edo profesionalen gainerako establezimenduak	130 euro
Altzariak eta gauzak biltzea, etab.	Doakoa
Etxeko animaliak jasotzea	Biltzeaz arduratzen den enpresari zuzenean ordainduko zaio tasa

#### 4.6. Kudeaketa.

Zerbitzu orokorrak eta nahitaezkoak emateagatik tasa ordaindu behar duten pertsonak alta-eta baja-deklarazioak eta aldaketak aurkeztu beharko dituzte, eta tasa behar bezala aplikatzeko behar diren datuak eman beharko dituzte, egitatea gertatu eta hilabeteko epean.

#### 4.7. Salbuespenak.

Salbuetsita daude Udalaren eta administrazio-batzarren jabetzako higiezin guztiak, baldin eta beren helburuak betetzen badituzte; ez, ordea, txoko edo sozietateak, edo horiek alokatutako higiezinak.

Era berean, 2021. urtean, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira honako establezimendu hauek:

- Tabernak.
- Zaharren egoitzak.

### 5. Edateko uraren homidura-zerbitzua Langara Ganboan

#### 5.1. Xedapen orokorra.

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Langara Ganboan edateko ura hornitzeko zerbitzua emateagatik tasa ezarri eta exijitzen du, ordenantza honen arabera, hargatik eragotzi gabe, ordenantza honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, zergak eta udal-zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatzea.

#### 5.2. Zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea Langara Ganboan edateko ura hornitzeko zerbitzua ematea da, ordenantza honetan jasotako tarifetan zehaztutako baldintzetan.

#### 5.3. Subjektu pasiboak eta erantzuleak.

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. paragrafoan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, tasa honen zergapeko egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen dituztenak edo horien onuradun edo eraginpean gertatzen direnak.

2. Ordenantza honetan araututako hornidurak edo zerbitzuak higiezin jabeak ez diren etxebizitzaren eta lokalen okupatzaileek eskatzen edo jasotzen dituztenean, jabe horiek zergadunaren ordezkotza izango dira.

Zergadunaren ordezkotza tasaren kuota onuradunari jasanarazi ahal izango dizkiote.

3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 42. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo erakundeak erantzukizun solidarioa izango dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren gainean.

4. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 43. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

#### 5.4. Tarifak.

1. Langraiz Ganboan edateko ura hornitzeko zerbitzua emateagatik tarifak honako hauek dira:

A) Etxeko erabilera:

– Zerbitzuaren kuota:

(gutxienez 10 m<sup>3</sup> arte, kontsumorik gabe: 15 euro/bi hilean behin).

(gutxienez 10 m<sup>3</sup> arte, kontsumoarekin: 10 euro/bi hilean behin).

– Kontsumo kuota (gainerakoa, 30 m<sup>3</sup>-raino): 0,56 euro/m<sup>3</sup>.

– 30 m<sup>3</sup>-tik gorako kuota: 0,84 euro/m<sup>3</sup>.

B) Abeltzaintzako erabilerak:

– Zerbitzu kuota (gutxienez 30 m<sup>3</sup>): 21,88 euro bi hilerik behin.

– Kontsumo kuota (gainerakoa, 100 m<sup>3</sup>-raino): 0,50 euro/m<sup>3</sup>.

– 100 m<sup>3</sup>-tik gorako kuota: 0,59 euro/m<sup>3</sup>.

C) Beste erabilera batzuk:

– Kontsumo kuota: 0,50 euro/m<sup>3</sup>.

D) Hartune berriaren tasa: 300,00 euro.

E) Hornidura-tasa (aurrekoaz gain, etxebizitza bat baino gehiago dituzten eraikinetan): 150,00 euro kontagailuko.

Zerga-kuota bi hilez behin ordaintzen da, eta ezin da murriztu. Ordainagiri bidez kobratuko da, eta BEZ kontzeptuagatik indarrean dagoen zerga-tasa aplikatuko zaie, Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen urtarilaren 19ko 12/1993 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

#### 5.5. Salbuespenak.

Tasa honetatik salbuetsita daude udalaren jabetzako ondasunak, bere helburuak betetzeko erabiltzen direnak.

### 6. Langara Ganboan hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzua ematea

#### 6.1. Xedapen orokorra.

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, ordenantza honen arabera Langara Ganboan hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzua emateagatik tasa ezartzen eta exijitzen du, hargatik eragotzi gabe, ordenantza horretan aurreikusi gabekoari dagokionez, zergak eta udal-zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk kudeatzeko, likidatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatzea.

## 6.2 zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea da:

- a) Estolderia orokorreko sarerako hartunea baimentzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak eta administratiboak betetzen diren egiaztatzeko jarduera.
- b) Iraizkinak, euri-urak, ur beltzak eta hondakin-urak husteko zerbitzuak ematea, tokiko estolderia-sarearen bidez, eta horiek arazteko tratamendua ematea.
- c) Ikuskapen-lanak, ezaugarri teknikoen egiaztapenak eta, oro har, 4. artikuluan azaldutakoak.

## 6.3. Subjektu pasiboak eta erantzuleak.

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, tasa honen zergapeko egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen dituztenak edo horien onuradun edo eraginpean gertatzen direnak.

2. Ordenantza honetan araututako hornidurak edo zerbitzuak higiezin jabeak ez diren etxebizitzaren eta lokalen okupatzaileek eskatzen edo jasotzen dituztenean, jabe horiek zergadunaren ordezkotza izango dira.

Zergadunaren ordezkotza tasaren kuotak onuradunari jasanarazi ahal izango dizkiote.

3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo erakundeak erantzukizun solidarioa izango dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren gainean.

4. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 43. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

## 6.4 Zerga-oinarria.

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga-oinarria, tarifaren arabera.

## 6.5 Tarifak.

Langara Ganboan hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzua emateagatik tarifak honako hauek dira:

– Hartune berriagatik tasa 300 euro, aurrekoaz gain, etxebizitza bat baino gehiagoko eraikinetan: 150,00 euro etxebizitza bakoitzeko.

– Abonu finkoko kuota 54,70 euro (9,12 euro bi hilean).

Zerga-kuota urtekoa eta murriztezia da, eta 6 bihilekotan banatuta ordainduko da, edateko uraren hornidura-tasarekin batera. Ordainagiri bidez kobratuko da, eta BEZ kontzeptuagatik indarrean dagoen zerga-tasa aplikatuko zaie, Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Arauan xedatutakoaren arabera. Hartune berriagatik tasa hartunearen eskaera aurkeztu ondoren udal-jarduera hasten den unean sortuko da, eta indarrean dagoen zerga-tasa ere aplikatuko zaio BEZaren kontzeptuan.

## 7. Fotokopiak eta antzekoak egitea

### 7.1 Helburua.

Tasa honen xedea da interesdunak aldeztu aurretik eskatuta, fotokopiak, dokumentuen erreproduktzioak eta antzekoak egitea.

### 7.2 sortzapena.

Zerbitzua ematea eskatzen den unean sortzen da ordaintzeko betebeharra, eta une horretan bertan biltzen da tasa autolikidazio-erregimenean.

### 7.3 subjektu pasiboa.

Zerbitzua ematea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak daude ordaintzera behartuta, eta tasa ordaintzen ez badu, ez da haren xedea entregatuko.

### 7.4 Salbuespenak.

Tasa hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira administrazio publikoak, erakunde ofizialak eta botere judizialeko organoak, betiere kopiak udaletxean egin badaitezke eta 30 baino gehiago ez badira, edo proiektu teknikoak badira.

### 7.5 Tarifak:

	NORMALA/EURO	MURRIZTUA/EURO	HANDITUA/EURO
Din A4 fotokopia	0,20/ orrialdeko	0,25/ orrialdeko	0,25/ orrialdeko
Din A3 fotokopia	0,70/ orrialdeko	0,90/ orrialdeko	0,90 orrialdeko
Makina bereziak behar dituzten proiektu eta espedienteak	Erreprografiako establezimenduak Udalarari kobratzen dion fakturaren ehuneko 110		
Osoko bilkurako akten Kopia	0,20 euro, inprimatutako orrialdeko		

Prezio hauei dagokien BEZa aplikatuko zaie.

## 8. Ezkontza zibilak egiteko zerbitzua ematea

### 8.1. Zergapeko egitatea.

Udal-eraikin edo -instalazioetan ezkontza zibilak egiteko udal- eta administrazio-zerbitzuak emango dira.

### 8.2. Subjektu pasiboa.

Subjektu pasibo zergadunak dira ezkontza zibila egiteagatik ematen diren zerbitzuak eskatzen dituzten edo jasotzen dituzten pertsona fisikoak.

### 8.3. sortzapena.

Ezkontza zibila egiteko eskaera aurkezten den unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra.

Ezkontza zibila eskatu ondoren, eta zeremoniarako ezarritako data baino lehen, eskatzaileek ezkontza egiteari uko egiten badiote, ordaindutako kuotaren ehuneko 50 itzuli beharko dute.

### 8.4. Zerga-kuota.

- Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan ezkontza zibila egiteagatik: 50,00 euro.
- Sologana Gizarte Etxean ezkontza zibila egiteagatik: 120,00 euro.

### 8.5. Kuota ordaintzea.

Ordenantza aplikatzearen ondoriozko kuotaren aurreko autolikidazio- eta sarrera-araubidea ezartzen da, eta tasaren zergapeko egitatea osatzen duten udal- eta administrazio-zerbitzuak emateko eskaerarekin batera, egindako diru-sarreraren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Horren prozedura ez da hasi edo izapidetuko hura egin arte.

### 8.6. Salbuespenak eta hobariak.

Ez da salbuespenik edo hobaririk emango tasaren ordainketan.

### Azken xedapena

Ordenantza fiskalaren aldaketa hau 2020ko abenduaren 15ean onartu zen behin betiko, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Aldaketa edo indargabetze espresua erabaki arte egongo da indarrean.



Horren berri ematen da, herritar guztiek horren berri izan dezaten, eta jakinarazten da haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Durana, 2021eko otsailaren 15a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*